

TOKI ENTITATEAK ETA UKRAINAKO KRISIA: INFORMAZIOA ETA GOMENDIOAK

(2022ko apirilak 7)

NUKFK, dagoeneko, zenbait zirkular igorri dizkie toki entitateei Ukrainako krisiarekin lotuta Espainiako Gobernuko Ordezkaritzak, Nafarroako Gobernuak eta egiaztatutako GGKE-k helarazitako informazioarekin eta gomendioekin.

Honako esteka honetan indarrean dagoen informazioa biltzen duen oharra ikus daiteke:

[Egin klik indarrean dagoen informazioa ikusteko](#)

Bestalde, honako berritasunak egon dira:

1. Hona hemen, Espainiako Gobernuko Ordezkaritzak igorrita, Ukrainatik Nafarroara datozen herritarrentzako **Harrera Plana**:

[Ukrainatik Nafarroara datozen herritarrentzako gida \(gaztelania-ukrainera\)](#)

[Ukrainatik Nafarroara datozen herritarrentzako gida \(euskara-ukrainera\)](#)

2. **Ordezkaritzak kontsultak egiteko honako helbidea jarri du eskura:**

infolegalucrania.navarra@correo.gob.es

3. Nafarroako Gobernuak ere **posta helbide bat sortu du profesionalak kontsultak egiteko bai eta udalek kontsultak egin ahal izateko ere:**

Profesionales.emergencia.ucrania@navarra.es

4. **Behin behineko babesarekin lotutako dokumentazioa** Iruñeko eta Tuterako udaltzaingoaren bulegoetan lortzen ahal da. Iruñean, orduetegi berezia jarri dute horretarako arratsaldetan eta Gurutze Gorria, udaltzaingoaren bulegoarekin batera, hitzordua antolatzeaz arduratzen da izapideak arintzeko.

5. Ukrainako **gida-baimenak** urtebeteko balioa du Espainian.

6. Gurutze Gorriak **familia-harremana berreskuratzeko zerbitzua** du, orain, Ukrainako krisia pairatzen duten pertsonak erabil dezaketena. Erakundearen zentroen bidez, familiako kideak bilatzen ditu. Gurutze Gorriak toki entitateei ere zerbitzu horren berri eman nahi die, haien udalerrian dauden errefuxiatuak batek behar izanez gero. Hona hemen zerbitzuaren berri ematen duten dokumentuak:

[Familia-harremana berreskuratzeko jarraibideak horma-irudia \(ukraineraz\)](#)

[Familia-harremana berreskuratzeko informazio-puntua \(ukraineraz\)](#)

[Familia-harremana berreskuratzeko jarraibideak horma-irudia \(ingelesez\)](#)

[Familia-harremana berreskuratzeko informazio-puntua \(ingelesez\)](#)

7. **Animaliekin bidaiatzen duten pertsonentzako informazioa**. Nafarroako Gobernuak Abeltzaintzako Zerbitzuak honako infografia hauek igorri ditu animaliekin bidaiatzen duten pertsonen zuzendutara:

[Infografia ukraineraz](#)

[Infografia ingelesez](#)

[Infografia gaztelaniaz](#)

Gainera, harremanetarako honako datuak igorri ditu:

Animalien Ongizatearen Atala
Abeltzaintza Zerbitzua
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua
González Tablas kalea 9, 2^a. solairua 31005 Iruña
e-posta: bienestar.animal@navarra.es

8. Nafarroako Gobernuak **telefono bidezko Dualia aldi bereko itzulpen-zerbitzua** du bertako hizkuntza ez dakiten migratzaileei arreta eman ahal izateko eta ikastetxeen eta osasun zentroen eskura jarri du. Zerbitzu hori udalen eskura ere jartzeko eskatu du NUKFk.